


Baionako Gure Irratiak
hats berria eman nahi
die bere emankizunei
azken denbora hauetan

Entzule gazteen
hunkitzeko saio batzuk
abiatu zituzten duela
zenbait hilabete, eta
orain *Gazte irratia* sail
bat badagoela ukaezina
da. Alabaina, orain,
arrats guziz,
20:00etatik
22:00etara,
gazteentzat
zuzenduak diren
emankizunak
egiten dituzte,
eta iduri luke
beren helburua
lortzen ari
direla.

Gure Irratia, gazte irratia



▲ kepa etxandi

eneko bidegain

Gazte irratia sail hori ez zen egun
batetik bestera egin. Hastapenean,
ostiral arratsetako emankizun bat
izan zen: *Erne* saioa. Gazteei zuzen-
dua zitzaien, ordu pare batez. Baina
emankizun horrek ere baditu bere ar-
basoak. Lehenago, duela zenbait urte,
gazte talde batek *Txakurrock* saioa egi-
ten zuen. Emankizun horrekin entzu-
leria gaztea lortu zuten, eta horren be-
reskuratzeko hasi ziren *Erne* emiti-
tzen, ohartzen baitziren gazteek ez zu-
tela entzuten Gure Irratia.

Geroztik urak egin du
bide, eta, astean arrats
batez emittitzeko ordez,
gazteentzat arrats guziz
egiten dituzte emanki-
zun bereziak. Eta arrats bakoitzak ba-
du bere nortasuna. Batez ere, musi-
kak betetzen ditu arrats horietako mi-
nutu gehienak. Baina gau bakoitzean
musika ezberdinak pausatzen dituzte.
Horrela, Gorka Torre emankizun ho-
rien koordinatzaileak azaldu digunez,
entzuleen artean emankizun horietar-
ik baten bederen entzuteko ohitura
sor dadin nahi dute.

Baina musika ez da emankizun
horien helburu bakarra. Gazteak
hunkitzen dituzten hainbat gai jorra-
tzeko ere baliatzen dituzte Gure Irra-
tiaren uhinak. Zinema kritikak, lite-
ratura, antzerkia eta abar aipatzen
dituzte. Elkarrizketa ugari ere
eskaintzen dute gazteen lan baldin-
tzei buruz, euskarari buruz, bidaiei
buruz. Esaterako, hiesari eta toxiko-
maniar buruzko emankizun berezi
bat izan berri da. Azken asteetan,
esperientzia berri bat badute eginik
bertsolaritzarekin: *Bertso-*

ganda lan berezia egiten ari dira,
Iparraldeko besta eta lizeo gehiene-
tan plaketa elebidunak banatzen
baifituzte. Gorka Torrek orain arte-
koaren bilan baikorra egin du. Zen-
bait gauez Gure Irratia pizteko ohitu-
ra gero eta gazte gehiagok dutela dio.
Hori bide egokia da, haren ustez,
Gure Irratiko beste emankizunak ere
entzuteko, beste orduetan. Baina
oraino askoz gehiago egin behar dela
pentsatzen du, helburua gazteen bai-
tan erreferentzia bilakatzea baita.

Bestalde, *Gazte irratia*k
gazte ekimenen aldeko
tresna bat izan nahi du,
haiekin elkarlanean.

Irrati saio horien ingu-
ruan dinamika berri bat sortu da

Lapurdikoko irratian. Hamalau bat
parte hartzailek molde egonkorrean
segurtatzen dute saio horien iraupe-
na. Orotara, hogeitahai bat laguntzaile
dira, eta erran gabe doa laguntzaile
guztiak urririk ari direla lanean.
Gazteen erakartzeko xedea arratseko
saioetatik urrunago doala ere erran
daiteke, egun osoan lanean ari diren
animatzaile eta berrikerietan gero
eta gazte gehiago baita.

Irratiak gazte ekimenen aldeko tresna izan nahi du

zirika jokoaren bidez,
Iparraldeko gazteei bertsolaritza eza-
gutarazteko xedea zuen Gure Irra-
tiak.

Gazte irratia-ren helburua ez da
euskaldun gazteei bakarrik zuzen-
tzea. Euskararik ez dakiten gazteak
ere erakarri nahi dituzte musikaren
bidez, gisa horretan erakutsiz badi-
rela euskaraz bizi diren gazteak. Eta,
emankizun horien inguruan, propa-

Asteeko egitaraua

Hona zein diren Gure Irratian
gazteentzako saioak, arrats guziz,
20:00etatik 22:00etara.

• Astelehena.

Herri topa: musika internazionalista,
gomitak, eztabaidak, herrien
aktualitate soziopolitikoak, talde
internazionalistak.

• Asteartea.

Uhain xaplata: emankizun musikala
(punk, hardcore, noise, indus)

Euskal Herria Zuzenean: hilabeteko
lehen asteartean.

• Asteazkena.

Kalamua: emankizun musikala
(reggae, dub, ska, ragga)

• Osteguna.

O Zenbakia: munduko musika eta
tertulia (zinema kritika, literatura)

• Ostirala

Erne: euskal musika, gomitak,
kontzertuetarako txartelak
irabazteko jokoak, hitzorduak.

• Larunbata

Txakurrok: emankizun musikala,
bertsolaritza, eztabaidak, kantu
eskaintzak, txisteak.

• Igandea

Metal oihua: emankizun musikala
(heavy, trash, death, techno-trash).